

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hamabosgarren aldakuntzaren proiektua onetsi eta aldakuntzari hasierako onespena ematea, Santa Maria katedralaren Plan Gidariaren esparruaren mugaketa aldatzeko

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko apirilaren 3an egindako ohiko bilkuran:

1. Residencia Palacio de la Burullería SLK aurkeztutako Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hamabosgarren aldakuntzaren proiektu xehatua onestea, Santa Maria katedralaren Plan Gidariaren esparruaren mugaketa aldatzeko.

2. Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hamabosgarren aldakuntza xehatuari, Santa Maria katedralaren Plan Gidariaren esparruaren mugaketa aldatzeko, dosierrean jasota dagoen proiektuarekin bat etorritz.

3. Dosierrean jendaurrean jartzea, hogei egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

4. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailari horren berri ematea, behin betiko onespena eman aurretik egoki diren txostenak egin ditzaten.

5. Santa Maria Katedrala Fundazioari txostena eskatzea, aldakuntza honen edukia gainean.

Dosierrean Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Nolanahi ere, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen duenaren ildotik, dosierrean kontsultatu eta alegazioak aurkezteko epea etenda dago, eta, beraz, delako Errege Dekretuaren indarraldia edo haren luzapenena bukatzen denean hasiko da zenbatzen.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 23an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE